

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

461/2026 Erabakia, uztailaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoaren lanpostuen zerrenda aldatzeari

Uztailaren 13ko 8/2016 Foru Arauaren bidez (ALHAOn, 81 zenbakia, 2016ko uztailaren 18koa), Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava (Arabako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) erakunde autonomia sortu zen.

Lanpostuen zerrendak eta haiei dagozkien aldaketak argitaratu ondoren, egun bi arlo desberdinekin osatzen dute erakunde autonomia:

- Zerbitzu Operatiboa: 189 plaza, suteak itzaltzeko azpieskala bereziko funtzionarioei eta lanbideetako langileei dagozkienak; eta,
- Giza Baliabideen eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzua: 12 plaza.

2023ko abenduaren 7an eta 2023ko abenduaren 29an, Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuei buruzko azaroaren 23ko 12/2023 Legea argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA, 233. zenbakia) eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE 311 zenbakia), hurrenez hurren.

12/2023 Legearen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko jarduerak antolatzea eta, orobat, euskal administrazio publikoen izaera horretako zerbitzuak eta bertako langileen estatutu araubidearen berezitasunak arautzea. Beraz, legearen aplikazio eremuaren barruan sartzen dira EAEko administrazio publikoetako suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuak eta bertako langileak, eta, beraz, Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomia hari atxikita dago, eta hori betetzeko behar diren egokitzapenak egin beharko ditu.

12/2023 Legearen 23. artikulua arabera, suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuetako funtzionarioak honako kategoria eta sailkapen talde hauen barruan daude, hierarkikoki antolatuta:

- a) Inspektorea: A sailkapen taldea eta A1 sailkapen azpitaldea.
- b) Ofiziala: A sailkapen taldea eta A2 sailkapen azpitaldea.
- c) Azpiofiziala: B sailkapen taldea.
- d) Sarjentua: C sailkapen taldea eta C1 sailkapen azpitaldea.
- e) Kaporala: C sailkapen taldea eta C1 sailkapen azpitaldea.
- f) Suhiltzailea: C sailkapen taldea eta C1 sailkapen azpitaldea.
- g) Komunikazio operadorea: C sailkapen taldea eta C1 sailkapen azpitaldea.

Aurreko lerroaldean aipatutakoari eutsiz, 15.1 artikuluan xedatzen denez, suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuetako funtzionarioak administrazio bereziaren eskalako suteak itzaltzeko azpieskalan daude sartuta, hierarkikoki banatuta, honako kategoria hauen arabera:

- a) Ikuskatzailea (A1): maila estrategikoko unitate teknikoak eta operatiboak zuzendu, koordinatu eta ikuskatzeko eginkizunak ditu, bai eta suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko beste eginkizun espezifiko batzuk ere.

b) Ofiziala (A2): maila estrategikoko unitate teknikoak zuzendu eta koordinatzeko eta koordinazio operatiboko eginkizunak ditu, bai eta suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko beste eginkizun espezifiko batzuk ere.

c) Ofizialordea (B): maila taktikoko agente eta koordinazio eginkizun operatiboak ditu, ikuskatzaile eta ofizialei laguntza teknikoa emateko eginkizunak, bai eta suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko beste eginkizun espezifiko batzuk ere.

d) Sarjentua (C1): maila taktikoko agente eta koordinazio eginkizun operatiboak ditu oinarritzko mailako talde operatibo baten edo batzuen gainean, bai eta suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko beste eginkizun espezifiko batzuk ere.

e) Kaporala (C1): oinarritzko esku hartze taldeen agente eginkizun operatiboak ditu, bai eta suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko beste eginkizun espezifiko batzuk ere.

f) Suhiltzailea (C1): eginkizun operatiboak ditu, bai eta suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko beste eginkizun espezifiko batzuk ere.

g) Komunikazio operadorea (C1): larrialdiko komunikazioak maneiatzeko, transmisioetarako, telefoniarako, herritarrei eta larrialdi zerbitzuei telefono bidezko arreta emateko eginkizun operatiboak ditu, eta larrialdiaren testuinguruan eginkizun operatiboetan parte hartzekoak, larrialdiaren agente nagusiaren mende.

Era berean, 12/2023 Legeak 23.2 artikuluan ezartzen du derrigorrezkoa dela suteak prebentzeko eta itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuen titular diren administrazio publikoek beren egitura egokitzea, suhiltzailearena ez ezik, esku hartze operatiboetan hiru agente mailak bermatuta egon daitezen:

- Kaporala, lehen esku hartzeko agente gisa.
- Sarjentua eta/edo ofizialordea, agente taktiko gisa.
- Ofiziala eta/edo ikuskatzailea, agente estrategiko gisa.

Egun, Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoaren egungo lanpostuen zerrendan Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzura atxikitako honako lanpostu hauek daude sartuta:

LANPOSTUA	KATEGORIA	LANGILE KOP
PSISZ Zerbitzuaren burua	Ofiziala/inspektorea/inspektoreordea	1
Inspektoreordea (ofiziala)	Inspektoreordea	3
Gainbegiraleburua (C1 ofizialordea, iraungitzeko)	Ofizialordea	8
Segurtasun eta osasun koordinatzailea	Ofizialordea	1
Sarjentua	Sarjentua	6
Dotazioburua	Kaporala	36
Suhiltzaile gidaria	Suhiltzailea	132
GUZTIRA		187

Orain arte egin dituzten egiteko eta eginkizunen arabera, eta kontuan hartuta indarrean dagoen agente operatiboa, bai eta PSISZen zerbitzuetan metatutako esperientzia, gaitasuna, prestakuntza eta egiaztatutako gaitasuna ere, «gainbegiraleburuaren» eta «segurtasun eta osasun koordinatzailearen» (kategoria: ofizialordea) lanpostuak betetzen dituzten pertsonak, esku hartze operatiboetako eskala hierarkikoaren barruan, agente estrategikoari dagozkion lanak esleituta dituzte.

12/2023 Legearen bigarren xedapen iragankorraren arabera, egungo ofizialordeen kategoriako funtzionarioek iraungitzeaz dagoen kategoria horretan jarraituko dute, eta betetzen ari diren aginte kate hierarkikoko eginkizunak eta erantzukizunak izango dituzte.

Beraz, egun SEAk ez du langile egokirik 12/2023 Legeak jasotako sarjentu eta/edo ofizialorde kategorietako langileez osatutako aginte taktikoaren eskalaren berezko eginkizunak esku hartze operatiboetan bete ahal izateko.

12/2023 Legearen bigarren xedapen iragankorrek ezartzen du administrazio publiko titularrek nahitaez egokitu behar dituztela lanbide egitura berrira suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuak. Horretarako, gehienez ere lau urteko epea dago, legea indarrean jartzen denetik, lanpostuak lege honetan aurreikusitako sailkapen taldeetara egokitze, xedapen iragankor honetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 74. artikulua xedatzen duenez, administrazio publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa tresnak erabilita egituratuko dute beren antolamendua. Horiek, gutxienez, hauek jasoko dituzte: lanpostuen izena, lanbide sailkapeneko taldeak, atxikita dauden kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak.

Ildo horretatik, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 45.1 artikuluan xedatzen duenez, lanpostu zerrendak euskal administrazio publikoek beren barne egiturak arrazionalizatu eta ordenatzeko baliatzen dituzten tresnak dira, eta langile beharrianak zehazten, lanpostuetan jarduteko betekizunak definitzen eta lanpostu bakoitza sailkatzen dituzte, efikaziari, efizientziari eta arrazionaltasunari buruzko irizpideen arabera. Zehazki, legearen 45.2 artikuluan xedatzen denez, lanpostu zerrendek hauek hartuko dituzte barruan, batera edo bereizita: aurrekontuan zuzkidura duten egiturako lanpostu guztiak, funtzionario, langile lan kontratudun eta behin-behineko langileentzat erreserbatuta daudenak.

Era berean, aipatutako 11/2022 Legearen 46. artikuluan xedatzen da lanpostu zerrendek honako datu hauek adieraziko dituztela, nahitaez, lanpostu bakoitzeko:

- a) Lanpostuaren izena eta lanpostu bakoitzetik dagoen dotazio kopurua.
- b) Zer sail edo zentro organikotara atxikita dagoen.
- c) Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, lanbide sailkapeneko talde edo azpitaldeak eta zer kidego, eskala edo beste sistematarako atxikita dauden, hala badagokio.
- d) [...].
- e) Hornitzeko sistema –dela lehiaketa, dela izendapen askea– eta, hala badagokio, zein administrazio publikotako langileei irekitzen zaizen hornidura hori.
- f) Ordainsari osagarriak, lanpostuari lotuak.
- g) Lanpostuaren hizkuntza eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun data.
- h) Arduraldi araubidea.
- i) Lanpostuaren izaera berezia ala normalizatua den.

Diputatuen Kontseiluaren irailaren 13ko 60/2016 Foru Dekretuak Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoko lanpostu zerrenda onetsi zuen, zeinek uztailaren 13ko 8/2016 Foru Arauak baimendutako 107 plazak jasotzen baitzituen. 60/2016 Foru Dekretuaren ondoz ondoko aldaketen bidez, Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoaren lanpostuen zerrenda eguneratuz joan da, egungo 195 lanpostuetara iritsi arte.

Foru Gobernu Kontseiluari dagokio, bere betearazpen eginkizunaren barruan, Foru Aldundiko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onestea, halaxe xedatzen baitu 10/2023 Foru Arauak (martxoaren 15ekoa, Arabako Foru Aldundiaren Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzkoa) 8.1.b).2 artikuluan, betiere 15/1987 Foru Arauaren 9.d) artikuluan aurreikusitakoarekin lotuta (15/1987 Foru Araua, urriaren 30ekoa, jarduera ekonomikoen eta foru zerbitzu publiko deszentralizatuen kudeaketari buruzkoa).

Arabako Lurralde Historikoaren 2026rako aurrekontua gauzatzeari buruzko abenduaren 16ko 20/2025 Foru Arauak 15.5 artikuluan baimena ematen du Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava 24 plaza sortzeko.

Bestalde, otsailaren 2ko 19/2024 Dekretuaren 36. artikuluan adierazitako txostena eskatu zaio Eusko Jaurlaritzan hizkuntza politikaren eskumena duen sailari.

Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoaren (Arabako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) estatutuen 13. artikulua xedatzen duenez, Administrazio Kontseiluaren eskumena da erakunde autonomoaren zerbitzura dauden langileen lanpostu zerrendari, lan eskaintza publikoari eta lan baldintzei buruzko proposamenak Foru Gobernu Kontseiluari aurkeztea, funtzio publikoaren arloan ardura duen sailarekin koordinatuta, onets ditzan.

2026ko maiatzaren 20an, Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluak erakunde autonomo horri atxikitako lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena egin zuen.

Horrenbestez, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostu zerrendaren aldaketa, jarraian xedatutakoaren arabera:

- Eranskinean jasotzen diren lanpostuak sortzea.

Bigarrena. Erabaki hau eta eranskina ALHAOn argitaratzea, bai eta laburpen bat ere EHAA-n.

Hirugarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo berean. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik —Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta—.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatua

IÑAKI GURTUBAI ARTETXE

ERANSKINA

AFS-KO LANPOSTUAK SORTZEA

KODEA	1104/0007	1104/0008	1104/0009	1104/0010	1104/0011	1104/0012
LANPOSTUA	Sarjentua	Sarjentua	Sarjentua	Sarjentua	Sarjentua	Sarjentua
LANTOKIA	Araba	Araba	Araba	Araba	Araba	Araba
TALDEA	C1	C1	C1	C1	C1	C1
DESTINO OSAG.	21	21	21	21	21	21
ESKALA	berezi	berezi	berezi	berezi	berezi	berezi
AZPIESKALA	zerbitzu bereziak	zerbitzu bereziak	zerbitzu bereziak	zerbitzu bereziak	zerbitzu bereziak	zerbitzu bereziak
MOTA	suteak itzaltzea	suteak itzaltzea	suteak itzaltzea	suteak itzaltzea	suteak itzaltzea	suteak itzaltzea
KATEGORIA	Sarjentua	Sarjentua	Sarjentua	Sarjentua	Sarjentua	Sarjentua
TITULAZIOA	2	2	2	2	2	2
ADMINISTRAZIOA	AFS	AFS	AFS	AFS	AFS	AFS
H.E.	2	2	2	2	2	2
DERRIOGORTASUN DATA	01/01/2026	01/01/2026	01/01/2026	31/12/2030	31/12/2030	
OSAG.ESPEZIFIKOA	34.510,00	34.510,00	34.510,00	34.510,00	34.510,00	34.510,00
BETETZEKO SISTEMA	C	C	C	C	C	C
GIDABAIMENA	CE	CE	CE	CE	CE	CE